




Prismaren alde interesatua



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Larsa (egungo Irak), 1922. Weld-Blundell ingeles espedizioiko kideak antzinako Sumerko hiriaren arrastoak induskatzen ari zirela, 20 cm-ko buztinezko prisma bat aurkitu zuten, lau aldetan zeinu kuneiformez beteta. Weld-Blundell prisma esaten zaio, edo Sumerko Errege-erreginen Zerrenda, nagusiki horixe idatzita baitago bertan.

Historialarientzat pagotxa izan zen hura, ustez, antzinako Mesopotamiari buruzko galdera askoren erantzuna, garai hartako hutsune zabalak kolpe bakarrean beteko zituen buztinezko historia liburua. Baina, luzaroan askok egiaztat hartu badi-tuzte ere –besteak beste, antzinako edo-zein fenomeno azaltzeko estralurtarrak erabiltzen dituzten sasi-historialariek; zenbait telebista katetan geroz eta oihartzun handiagoa duten “aditu” horientzat Grial Santua da prisma–, zenbait historialarik erraz jarri dituzte zalantzan edo gezurtatu dituzte prismen idatzitakoak. Zerrendako lehen zatia lehen errege-erreginei dagokie eta ez du inolako oinarri historikorik, ezta egiaztatzeko beste iturrikerik ere. Adibidez, Enmenluanak 43.200 urtez agindu zuela dio, eta Dumuzidek 36.000 urtez –estralurtarrak ote?–.

Bigarren zatiko agintari batzuk existitu zirela badakigu beste iturri batzuei esker, esaterako, Urukeko Enmerkar edo Gilgamesh. Zerrenda zati honetako erre-



ASHMOLEAN MUSEUM

WELD-BLUNDELL PRISMAN SUMERIAR ERREGE-ERREGINEN ZERRENDADA IDATZITA, BAINA BERTAN JASOTAKO DATU ASKO EZ DATOZ BAT BESTE ITURRI BATZUEKIN.

gina bakarria ere, Kisheko Kug-Bau, existitu zen, eta 20 urte inguruko erregealdia izan zuela dio oholtza batean aurkitutako idazkunak, baina prismak dio mende oso bat eman zuela agintean.

Hirugarren zatian agintari berrienak daude. Horiei buruz askoz informazioa gehiago bildu da hainbat iturrietatik eta datu horiek ez datoz bat prismen jaso zituztenekin. Monarka batzuk ez dira agertzen zerrendan, Lagasheko Eannatum, adibidez. F.R. Kraus, J.J. Finkelstein eta beste historialari batzuen ustez, zerrenda propio mol-

datu zuten eta ziurrenik zerrendako azken erregeak, Isineko dinastiako Sin-Magir-ek (K.a 1827-1816) egin zuen enkargua.

Sumerren hegemonia azkenetan zegoen, barne eta kanpo gatazkak, estatu-kolpeak... etengabekoak ziren, eta zuhaitz genealogiko distiratsu bat lagungarri zen tronuan esertzeko eta hari eusteko. Hau da, Sin-Magirrek komeni bezala moldatu zuen iragana bere ekintzak justifikatzeko.

Hortaz, Weld-Blundell prisma ez da iturri historiko fidagarria, baina balio du bostereak nola funtzionatzen duen ikusteko. ●



Harri Aroko arrantzaleak ur handitan

Suedian, Göteborgetik 15 bat kilometrorra, Tumlehedeko labar pinturak aurkitu zituzten 1974an. Margolanak duela 6.200-4.500 urte egin zituzten eta, besteak beste, hainbat itsasontzi eta arrain irudikatzen dituzte. Beraz, neolitoko gizaki horiek arrantzaleak zirela adierazten dute.

Orain, teknologia lagun, irudi eta xehetasun berriak azaleratu dira 2 me-

tro luze eta zabal den sortan. Zehazki, mota jakin bateko itsasontziak erabiltzen zituztela geratu da agerian, altze burudun zurtoineko ontziak. Datu soil horrek adierazten du neolitoko arrantzaleak uste baino urrunago jarduteko gai zirela, 2.000 km-ko bidaia egiten zituztela, eta harremanak zituztela iparraldeko eta ekialdeko beste komunitate batzuekin. ●